



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Grado Amaierako Lana

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2014/2015 ikasturtea

GURE BURUAREN ONARPENETIK, GIZAKION ERRESPETURA

Egilea: Leire Fernandez Martin

Zuzendaria: Ana Rosa Arrivillaga Iriarte

Leioan, 2015eko ekainaren 3an

EGILEAREN ONIRITZIA

Aurkibidea

Sarrera.....	4
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala	5
1.1. Zer da autoezagutza?.....	5
1.1.1. Autoezagutzaren sailkapena	5
1.2 Autoezagutza eta gizartea	7
2. Metodologia.....	10
2.1 Ariketen diseinuaren justifikazioa.....	11
3. Lanaren garapena.....	18
4. Emaitzak.....	26
5. Ondorioak.....	28
Erreferentzia bibliografikoak.....	29

ERANSKINAK

1. Eranskina
2. Eranskina
3. Eranskina
4. Eranskina
5. Eranskina
6. Eranskina
7. Eranskina
8. Eranskina
9. Eranskina
10. Eranskina
11. Eranskina
12. Eranskina
13. Eranskina
14. Eranskina
15. Eranskina
16. Eranskina
17. Eranskina

GURE BURUAREN ONARPENETIK, GIZAKION ERRESPETURA

Denok gara garrantzitsuak, denok gara bereziak, denok gara bakarrak, denok gara desberdinak

Leire Fernandez Martin

UPV/EHU

Gaur egungo eskoletan, oraindik ere, zoritxarrez, behar besteko garrantzirik ematen ez zaion eta sendotu behar den ikasleen autoezagutza fisikoaren inguruan, honako landa-lana diseinatu eta ikasleekin burutu egin da, hauengan aldaketa bat sortarazteko asmoarekin. Horretarako, prestatutako ariketa desberdinen bitartez, ikasleen arrazonamendu maila, baita maila emozionala ere landu egin da. Kontuan izanda, autoezagutzan, aldaketak epe luzean ematen direla, esku-hartze honen bidez ez dira aldaketa handirik edo esanguratsurik nabarmendu. Dena den, errespetuaren balorea ikasleengan transmititzea lortu egin da. Hori dela eta, landa lana burutu eta gero, egindakoaren inguruan, autokritika egin da.

Autoezagutza fisikoa, itxura fisikoa, errespetua, landa-lana, eskola

Hoy en día, en las escuelas, lamentablemente, no se le da la suficiente importancia al autoconocimiento físico de los estudiantes, idea que se debe fortalecer. Por eso mismo, se ha diseñado y llevado a cabo con un grupo de estudiantes, este trabajo de campo con el fin de producir un cambio en ellos. Para ello, mediante los ejercicios diseñados, han desarrollado tanto su nivel de razonamiento como el nivel emocional. Teniendo en cuenta que los cambios en el autoconocimiento ocurren a largo plazo, a través de esta intervención no se han dado grandes o significativos cambios. Sin embargo, se ha conseguido transmitir a los estudiantes el valor del respeto. Por eso mismo, una vez llevado a cabo el trabajo de campo, se ha realizado una autocrítica sobre lo ocurrido al respecto.

Autoconocimiento físico, aspecto física, respeto, trabajo de campo, escuela

Nowadays, unfortunately, physical self-awareness of students is not given enough importance, and this concept should be strengthened. For this reason, it is designed and conducted with a group of students, this field work in order to produce a change in themselves. So, through the exercises designed, they have developed their level of reasoning and their emotional level. Considering that changes take a long time to be noticed, through this procedure they have not given large or significant changes. However, it has managed to make students value respect to the others. For this reason, once the field work carried out, a self-criticism about what happened has been made.

Self-knowledge, physical appearance, respect, field work, school

Sarrera

Gure gaur egungo kezka nagusietariko bat, gure ikasleen eta baita irakasleon autoezagutza erabat definituta ez dagoela da. Egunero, hain lanpetuta ibiltzen gara, ez dugula ezta denborarik ere izaten, gu benetan nolakoak garen, zelan sentitzen garen... pentsatzeko eta horretan hausnartzeko. Hori dela eta, gure gizartean, jada onartuta dauden balore eta irudi publikoak aintzat harturik, pertsona bihurtu egiten gara, hots, jendeak espero duenaren arabera eta ez gu benetan garenaren arabera.

Baina nolako pertsona izan nahi dugu? Garen bezalakoak onartu egiten gara? Berriz ere jaiotzeko aukera izango bagenu, garen modukoak izatea gustatuko litzaiguke?

Zorionez, gizakiok, bizitza luze bat daukagu aurretik eta ondorioz, gauzez ohartzeko eta nahi izatekotan horiek aldatzeko eta hobetzeko aukera dugu. Hezkuntzak, aurre egiteko beharrezkoak diren tresnak edo baliabideak badituela kontuan izanda, ondorengo landa lana prestatu egin da. Gure eskoletako ikasleak, haien autoezagutza fisikoa garatzen hasi direlarik, hori ahalik eta aberatsen, esanguratsuen eta sendoen izaten lagundu nahi izan zaie, betiere, errespetuaren balioa kontuan izanik, bai norberaren buruarekiko zein gainerakoekiko. Honekin batera, gizarteak bultzatzen dituen irudi publikoak alde batera utzi nahi izan dira, bakoitza den modukoa onartuz.

Ikasleekin autoezagutza lantzeaz gain, irakasleekin lantzea ere garrantzitsua da. Izan ere, zelan irakatsiko diegu gure ikasleei haien burua den moduan onartu egin behar dutela, guk, irakasleok, benetan nolakoak garen baldin ez badakigu? Autoezagutza landuz, hausnarketa pertsonala bultzatu egiten da, non bakoitzak bere Ni-arekin konektatu egiten duen.

Horrelako egoerak sortzea, ezinbestekoak dira gure dimentsio emozional zein afektiborako. Gertatzen dena da, gure gaur egungo gizartean, eskolan bereziki, oraindik ere, dimentsio horiei ez zaiela behar besteko garrantzirik ematen eta ondorioz, pertsonak osotasunean lantzeko joera gutxi dago.

Beraz, esan bezala, egoera horri aurre egiteko, ondorengo interbentzioa diseinatu eta ikasleekin burutu egin da, *denok desberdinak, bereziak, bakarrak eta garrantzitsuak garela* esku-hartzearen leloa izanda.

Landa-lana, jarduera desberdinez osatuta dago, ikasleen arrazonamendu maila eta maila emozionala lantzen direlarik. Ikasleen autoezagutza fisikoan ea aldaketarik eman den ala ez jakiteko, ikerketa, Pre-test eta Post-test batean oinarritzen da.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

Eskola, ikerketarako testuinguru edo espazio nagusia izanda eta ondorioz, horren erreferentzia-puntua galdu nahi ez denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntza Curriculumetik ateratako ondorengo aipamena egin nahi da, lan idatzi honi erreferentzia egiten diona eta esku-hartzearen abiapuntua dena:

1.- Banakakoaren zein gizartearen dimentsioan giza izaera aintzat hartzea, eta norberaren nortasuna onartzea, bai eta gainerako pertsonena ere, hari dagokion dimentsio pribatua eta guzti, banakakoen desberdintasunak eta pribatutasun-eremua errespetatzeko eta autoestimua hobetzeko (Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntza Curriculuma, 2010:94).

1.1. Zer da autoezagutza?

Gaur egungo aditu askok, autoezagutza, autokontzeptua eta autoestimua kontzeptuak bata bestearengandik desberdindu egiten dituzte. Horien artean, De la Herranek (2004) bestelako aditu batzuek (Witthaker, E. Rojas, K.R. Popper) autoezagutzaren inguruan egindako definizioak baztertu egiten ditu, kontzeptu horien arteko bereizketa eginez. Bere ustez, autoezagutza *nor naiz ni* galderari bakarrik erantzuten dio, nolakoa naiz ni, zertarako naiz ni, norberaren bertute eta akatsak zeintzuk diren kontuan izan barik

Beste alde batetik, Garcia eta Musituk (2014) autoezagutza, norberak, izaki fisikoa, soziala eta espirituala delarik, bere buruaz duen ezagutza dela diote. Honekin batera, autoezagutza eta autoestimua arteko erlazioa ez dela ahaztu behar aipatzen dute. Izan ere, autoezagutza, norberari buruz egindako hausnarketaren (autoestimua) emaitza da.

Autoezagutza baxua izaten duen pertsona bat, bere itxura fisikoarekin deseroso eta zirkunstanzien biktima sentitzen da. Gainera, gainerakoak asetzeko grina eta bere sentimenduak adierazteko zailtasunak ditu. Autoezagutza altua duenak aldiz, bere buruarengan konfiantza dauka eta pertsonengandik urruntzeko ez dauka beldurrik. Horretaz gain, edozein aldaketaren aurrean eroso sentitzen da eta bere ekintzen erantzulea da.

1.1.1. Autoezagutzaren sailkapena

Gaur egun, Garciak eta Musituk (2014) autoezagutzaren dimentsioanitzak eztabaida ugari sortu izan dituela aipatzen dute, izan ere, aditu batzuen arabera (Marx & Wynne, 1978; Coopersmith 1967) dimentsio bakarra nabarmentzen dute, alderdi orokorrak

azpimarratuz. Beste batzuk aldiz, (Shavelson, Hubner & Stanton, 1976; Musitu, Garcia & Gutierrez, 1991) autoezagutzak dimentsio anitzetako egitura eta antolaketa hierarkikoa duela diote.

Diseinatutako interbentzio honetan, (Shavelson, Hubner & Stanton, 1976) autoezagutzaren antolaketa eta egituraketaren eredia oinarritzat hartuko da. Izan ere, gaur egun arte, babes enpiriko handiena jaso izan du (Marsh eta O'Neill, 1984; Marsh, Richards & Barnes, 1986; Elempuru, 1989; Zaharopoulos & Hodge, 1991; Zulaika, 1999).

Sailkapenean¹ ikusi daitekeen moduan autoezagutza kontzeptu orokorraren azpian, autokontzeptu akademikoa eta ez-akademikoa desberdintzen dira. Akademikoaren barruan, hizkuntzak, gizartea, matematika eta zientziak daude. Ez-akademikoan, aldiz, honako hiru azpimultzo nabarmentzen dira: soziala, emozionala eta fisikoa, guzti hauek zehaztasun maila handira iristen direlarik.

Sailkapenaren izaerari erreparatuz, dimentsio anitz dituen, jendeak autoezagutza orokor positiboak, iturri desberdinetatik lortu ditzake. Zenbait eremutan, gaitasun positiborik ez dutenek, beste alorretatik ere osatu edo ordezkatzeko aukera dute. Horretaz gain, aipatzekoa da, antolaketa hierarkikoaren ondorioz, dimentsio eta esparruek, haien garrantziaren arabera antolatuta daudela.

Ikerketa-lan hau, sailkapen guzti horretatik, **autoezagutza fisikoa** zentratu egin da. Izan ere, Catalina, Fraile eta Martínek (2009) esaten duten moduan, txikitatik, ikaskuntza prozesuan, garatzen doan pertsonalitatearen eta autopertzepzioaren dimentsioa da, bestetik indibiduo independenteak eratuz. Hori dela eta, garrantzitsua da, ikasleekin, autoezagutza fisikoa Lehen hezkuntzatik lantzea, haien pertsonalitatearen eta izaeraren onarpena sustatzeko eta bide batez, gainerakoak ere onartzeko.

1.1.1.1 Zer da autoezagutza fisikoa?

Garcia eta Musitu (2014) honela definitu egiten dute autoezagutza fisikoa: norberak bere itxuraz eta egoera fisikoaz daukan pertzepzioa da.

Hortik abiatuta, Goñi, Palacios, Ruiz de Azua eta Zulaikak (2002), egiten duten sailkapena eredutzat hartuko da. Izan ere, eremu fisikoaren barruan sailkapen bat egiten

¹ IKUS Shalvenson, Hubner eta Stanton (1976) sailkapena (1. eranskina)

dute, bi azpi-dimentsio desberdin bereiziz: alde batetik, norberak bere buruaren itxura fisikoaz eta gorputzaren ezaugarriez duen ikuspegia, eta beste aldetik, bere sasoi fisiko eta kirol trebetasunez duen pertzepzioa. Dimentsio bakoitza, zehaztasunera eramaten dute, ondorengo ezaugarri fisikoak desberdinduz: gorputza eta bere atalak, gorputz-eskema, gorputz-irudia, kirol trebetasun eta abileziak eta azkenik, sasoi fisikoa.

Gure gaur egungo gizarteak, eragin zuzena izaten du, batez ere gazteen artean, autoezagutzaren eraikuntza. Goñik, Rodriguezek eta Ruiz de Azuak (2005) esaten dutenaren arabera, publizitatearen presioak, gorputz argalen ereduak bultzatzen ditu batez ere. Hori dela eta, eskolak eskaintzen dituen tresnak aprobetxaturik, ikasleen autoezagutza fisikoaren pertzepzioaren garapena eta bilakaera hobetu daiteke, ikasleak hasi eta hezi egiten diren ingurugiroa kontuan izanik.

Aipatzekoa da, umeak haien burua deskribatzerako orduan, zenbat eta txikiagoak izan, orduan eta gehiago oinarritu egiten direla aspektu fisikoetan, ondorengo esamoldeak sortuz: *begi urdinak ditut*. Nagusitzen diren heinean, deskribapen konplexuagoak egiteko gai izaten dira, baina horretarako ohitura galtzen dutenez, nortzuk diren ez dakite.

Catalina, Fraile & Martín-en ustez (2009) ikaslearen autokontzeptu fisikoa eta hori baldintzatzen duten aldagaiak ezagutzen baldin baditugu, autokontzeptua hobetzen den hienean, pertsona bera ere hobetu egiten da.

1.2 Autoezagutza eta gizartea

Gizarteak, autoezagutzan duen eragina aztertzea ezinbestekoa da, izan ere, Moré eta Hernandezek (2015) esaten duenaren arabera, autoezagutzaren prozesua, neurri batean, esperientzia sozialean garatu egiten da, gainerakoek norbanakoari buruz dituzten usteetan eta gizarteak bultzatzen dituen irudi publikoetan oinarriturik.

Navarrok (2009) dioenez, kultura batetik abiatuz, familia bakoitzak bizitzeko eredu edo jarraibide desberdinak hartzen ditu, kultura txikiago bat sortuz, ondoren, kideei transmititu egiten zaizkienak eta eredu sozial jakin baten arabera, norberaren izaera osatzen laguntzen dutenak.

Savaterren (1997:11) ondorengo aipuak, aurreko ideia indartzeko balio du: *“los humanos nacemos siéndolo ya pero no lo somos del todo hasta después”*. Hau da, gure

inguruko kideak imitatzen ditugunean eta haiekin harremanetan jartzen garenean gizakiak izaten lortzen dugu, balore jakin batzuk irakatsi dizkigutelako eta horietan oinarriturik jarduten dugulako.

Arazoa da, gelditzeko eta hausnarketarako denborarik ematen ez digun gizartean bizi garela, norbera den modukoa izateko zailtasunekin. Izan ere, modan dagoenaren, momentuan interesatzen zaigunaren eta sozialki zuzena denaren arabera mugitu egiten gara. Borja Vilasecaren (2014) ustez, hori guztia desagertu egiten denean, kasu gehienetan, nolabaiteko hutsunea sentitzen dugu gure baitan, edozein gauzarekin berriro asetzen duguna. Honek, gizarteko partaideek haien burua oso gutxi ezagutzen dutela eta besteen interesen eta nahien arabera mugitu egiten direla agerian ustean du.

Beraz, norberaren irudia, kanpotik barrura eraiki egiten da, gure inguruko jendeak gutaz pentsatzen dutenaren arabera eta ez alderantziz. Gainera, pertsona batek, bere burua ebaluatzeko edota besteengandik ebaluatua izateko irizpideak, guztiz kulturalak dira, eredu sozialtzat hartzen direnak eta irudi publiko jakin bat zehazten dutenak.

Navarro (2009), familiak, autoezagutzan duen garrantzia nabarmendu egiten du. Izan ere, guraso askok, txikitan tratatu txarrak jaso izan dituztenek, haien seme-alabekin ere biolentziarako joera izaten dute. Horrelako jokabideak, orokorrean, bat etortzen dira guztiz aurkakoak direnekin: maitatua, ederra eta adimentsua dela esaten diotenean. Horrelakoetan, haurrari nolabaiteko nahasketa sortarazi egiten diote eta bere gaitasunen garapenean eta formakuntzan, baita autoezagutzan ere eragin negatiboa izaten dute, autoestimua beherantz eginez.

1.3 Autoezagutza eta eskola

Gizarteak autoezagutzan eragina daukan bitartean, eskolak ere eragin nabarmena izaten du. Hori dela eta, aditu askoren ustez aztertu beharreko esparrutzat hartzen da eskola.

Mirasek (z.g.) esaten duenaren arabera, eskola, irakasle eta ikasleak haien ezagutzak garatzeko eta prozesu honetan batak besteari laguntzeko bildu egiten diren lekua da. Zorionez, orain dela urte batzuetatik aurrera, egoera horretan aldaketak pairatzen hasi dira. Ondorioz, eskolan, pixkanaka-pixkanaka, jokaeraren dimentsio kognitiboa, dimentsio emozional eta afektibozkoarekin erlazionatu eta osatu egin nahi da.

Ikaskuntza garapenean, ikasle bakoitzaren gaitasunak, estrategiak, ezagutza espezifikokoak... kontuan izan behar baldin badira, haien gaitasun emozionala eta oreka pertsonala ez dira ahaztu behar, non norberak bere buruaz eraikitzen dituen irudikapenak nabarmentzen diren.

Ikaskuntza prozesuan, autoezagutza akademikoak berebiziko garrantzia dauka, hots, ikasleak, bere burua ikasle bezala zelan ikusten duen. Irudikapen horren arabera, ikasle horrek autoestimua baxua edo altua izango du.

Greene eta Miller (1996), irakasle eta ikasleen arteko interakzioak, ikasleen irudikapenen, atribuzioen, itxaropenen eta hasierako interesen ezaugarrietan eragina izan dezakete, ikaskuntzaren zentzua, motibazioa eta ikuspuntua aldatuz.

Navaroren ustez (2009), ezinbestekoa da, irakasleak, balore zehatzak eta argiak transmititzeko gai izatea. Izan ere, esan bezala, irakasleak, ikasleak norberarekin aurkitu daitezkeen prozesuan lagundu edo oztopatu dezake.

Ikaskuntzan eman daitezkeen porrotak, autoestimuan eragina zuzena izan dezake. Hezitzaileek, ikasleen artean egon daitezkeen ikaskuntzarako erritmo desberdinak kontuan izan behar dituzte, ikasleak eskolan eroso sentiarazteko eta haien eremu akademikoa eta pertsonala garatzen ematen duten denbora ondo aprobetxatzeko.

Horrekin batera, jakin beharrekoa da, ikasle bakoitzaren adimena irudi tridimentsional desberdinez osatuta dagoela: lehenengoa, ikasle bakoitzak, bere buruaz duen irudiarekin erlazionatzen da. Bigarrena, ikasle bakoitzak, gainerako ikaskideekin duen harremanaren inguruan duen iritziarekin lotzen da. Azkenik, hirugarren dimentsioa, norberak bere irudiarekin eta gustatuko litzaiokkeen irudiarekin erlazionatzen da.

Hori dela eta, ezinbestekoa da, ikasleek, eskolan ematen duten denboran, izan nahi duten pertsona aurkitzeko aukera izatea, denbora, gatazkak eta nahasketak onartuz eta errespetatuz.

Hezitzaile on batek, ikasleak ondo sentiarazteko giroa sortzen jakin behar du, non bakoitzak, aurrera egiteko aukera desberdinak aurkitu ditzakeen. Honekin batera, ikasle bakoitzaren gaitasunak edo trebetasunak aintzat hartu behar ditu eta baita bakoitzaren sentimenduak eta irudiak ere.

2. Metodologia

“Existe un peligro mayor en esta cuestión de aceptar las limitaciones de los demás. Algunas veces, tendemos a considerar como limitaciones las cualidades que son, en realidad, la fortaleza de la otra persona”

Eleanor Roosevelt

Diseinatutako landa-lana, Goñi, Palacios, Ruiz de Azua eta Zulaikak (2002) autoezagutza fisikoaren barruan desberdintzen dituzten bi eremuetatik, norberak bere buruaren itxura fisikoaz eta gorputzaren ezaugarriez duen onarpenean eta errespetuan oinarritzen da. Izan ere, laugarren mailako hamasei ikasleekin burutu egingo da, non autoezagutza fisikoa era esanguratsu batean garatzen hasi den.

Ikerketa honetarako, planifikatu, sortu eta aurrera eramán den esku-hartzea, ekintza edo jarduera desberdinez osatuta dago eta ondorengo helburu orokorra oinarritzat hartuta diseinatu egin da:

Ikasleen autoezagutza fisikoan, aldaketak sortaraztea. Hau da, ikasleek haien fisikoa, diren moduan direlarik, ezagutzea eta onartu egitea, haien trebeziez zein ahuleziez ohartzuz.

Helburu hori lortzeko, bederatzi saiotarako, ariketa desberdinak diseinatu egin dira.

ARIKETAK	SAIOAK
1. Pre-test	Saio bat
2. “Denok gara...”	
3. “Autoezagutza desberdinak ezagutuz”	Saio bat
4. “El circo de las mariposas”	Saio bat
5. “Esperientzia pertsonalak ezagutuz”	Hiru saio
6. “Ni neu”	Saio bat
7. “Nortasun agiria”	Saio bat
8. “ Denok gara...”	Saio bat
9. Post-test	
GUZTIRA	BEDERATZI SAIO

1. Taula. Diseinatutako ariketak

Jarduera horietan, ikasleek arrazonamendu maila eta maila emozionala landu egingo dituzte. Lehenengo mailari dagokionez, autoezagutzaren inguruan ikusitakoaren informazioa jaso eta barneratu egingo dute. Beste alde batetik, horrelako interbentzio batean, non autoezagutzan aldaketak suertatu nahi diren, maila emozionala ere lantzea ezinbestekoa da, aldaketa horiek ahalik eta esanguratsuenak izateko, emozioen zirkulua ondo itxita geratzeko eta empatia landuz, ikasleek beste pertsona batzuen esperientzia bizi eta gertutik ezagutu ahal izateko.

Jardueren ebaluazioari dagokionez, helburu orokorra, Pre-testa eta Post-testaren bidez ebaluatu egingo da. Izan ere, autoezagutzan aldaketa nabarmenak epe luzean ematen dira. Dena den, gainerako ariketa batzuetarako ebaluazio tresna desberdinak erabili izango dira, ariketen erabilgarritasuna eta prozesua eraginkorra izaten ari den ala ez aztertzeke.

Denboraren garrantzia kontuan izanik, bi asteetan zehar aurrera eramateko planifikatu egin da, tartean, inolako mozketarik ez izateko.

Honekin batera, aipatzekoa da, ekintza hauetarako material berria sortu egin dela. Horretarako, ikasle guztien ezaugarriak kontuan izanik, *Comic Sans* letra motarekin egin behar izan da. Izan ere, gela honetan bada dislexia duen ikasle bat eta irakasleak esandakoaren arabera, letra mota horrekin testuak hobetu ulertu egiten ditu.

Jarduera horien bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntza Curriculumean aipatzen diren zortzi gaitasunetatik, nabarmenki, bi landuko dira: norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasuna eta gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna. Lehenengoaren kasuan, batez ere, norberak bere burua ezagutu egingo duelako. Bigarrenaren kasuan, aldiz, gizartearen errealitatea ulertu egingo dute, elkarbizitza landuz eta gizarte hori hobetzeko konpromisoa bultzatuz.

2.1 Ariketen diseinuaren justifikazioa

Esan bezala, ikerketa-lan honetan, interbentzio bat diseinatu eta burutu egin da.

Helburu orokorra ea bete egin den ala ez aztertzeke, hasiera batean, **Pre-test** eta **Post-test**² bat diseinatu egin dira, guztiz anonimoak izango direnak, izan ere, garrantzitsuena ez da nork esan duen zer edo amaieran, nor aldatu den jakitea. Dena den, galdetegi

² IKUS diseinaturiko Pre-test eta Post-testa (2.eranskina)

bakoitzaren orrialdearen beheko ertz batean, zenbaki bat agertuko da, Pre-test bakoitza dagokion Post-testarekin identifikatu ahal izateko eta lortutako datuak alderatzeko.

Honekin batera, esan beharra dago, hauek diseinatzerako orduan, ikasleen adina eta adimen kognitiboa kontuan izan dela. Izan ere, irudiak, marrazkiak... alde batera utzi dira, horiek lehenengo zikloetarako zuzenduta baitaude eta ikasleak laugarren mailan egonda, badirelako gai planteatzen zaizkien galderei erantzuteko eta gai baten inguruan hitz egiteko edo idazteko.

Musituk aurrera eramaten dituen galdetegi motak ikusi eta gero, haien fisiko eta izaeraren inguruko hogeita bi galdera itxi eta galdera ireki bat planteatzea erabaki da. Izan ere, galdera irekiak, autoezagutzan eman daitezkeen aldaketen azterketa-prozesua errazten duelako, lortzen diren emaitzak edo erantzunak askoz ere zehatzagoak izango baitira. Era honetan, ikasleek, eskubide eta askatasun osoa izango dute, benetan pentsatzen eta sentitzen dutena idazteko. Galdera itxiarekin aldiz, ikasleek, askoz ere mugatuagoa aurkitzen dute haien burua.

Planteatutako item guztiak, lehenengo pertsonan eginda daude, ikaslea irakurtzen duenarekin hobeto identifikatzeko. Aipatzekoa da, kasu batzuetan, birritan bereziki, aurkako esaldiak sortu egin direla, bata bestearengandik tarte handia utziz, nahitasunaren kontzeptua saihesteko asmoarekin. Izan ere, ikasleek ikertzaileak espero duen erantzuna emateko joera dute. Adibidez:

“Nahiago dut argala izatea, lodia izatea baino.”

“Nahiago dut lodia izatea, argala izatea baino.”

Esan beharra dago, Pre-testa eta Post-testa guztiz berdinak direla, izan ere, interbentzioarekin bukatu eta gero, lortutako emaitzak alderatu behar dira eta horretarako, itemak berberak izatea ezinbestekoa da. Galdetegiaren luzera ere kontuan ikasleen arreta eta motibazioa mantentzeko. Hori dela eta, galdetegia orri batekoa, baina bi aurpegietatik, izateko prestatu egin da.

Pre-test eta Post-test, interbentzioaren hasieran eta amaieran burutu egingo dira. Era honetan, hasierako aurrezagutzak, amaieran lortu direnekin alderatu ahal izango dira, irizpide batzuetan oinarriturik, aldaketak eman diren ala ez aztertzeko.

Hurrengo ariketarako, **“Denok gara...”**³ deituriko dokumentua edo txartela sortu egin da, esku-hartzearen leloa baita. Honekin, ikasleei, bakoitza mundu bat dela, besteengandik desberdindu egiten dela, eta den modukoa errespetatu egin behar dela transmititu egingo zaie amankomunean egingo den hausnarketaren bidez.

Guztion artean egingo da, azken finean, gaia hasi berria delako eta ikasleek gaiarekiko konfiantza hartzen joateko. Era honetan, haien arteko eztabaida sortu ahal izango da, errespetuan oinarriturik beti ere. Gainera, irakasleak, ikasleek esaten dutena egokia den ala ez den ez du esango. Izan ere, hausnarketa, soilik, bideratu egingo du, haien iritzia zein den jakiteko eta gaian murgilarazteko.

Ariketa honetarako, aukeratu egin diren adjektiboak, desberdinak, bereziak, garrantzitsuak eta bakarrak izan da, hori baitira, bata bestearengandik desberdintzen gaituzten nabarmenenak.

Ekintzarekin bukatu eta gero, txartela, gelako horman itsatsita geratuko da, ikasleek egunero ikusi ahal izateko, eta bertan jartzen duenarengan sinesteko eta inoiz ere ez ahazteko. Azken finean, ikasleengan aldaketa bat sortarazi nahi baldin bada, ez da nahikoa hausnarketara bultzatzen gaituzten jarduerak behin egitearekin, ondoren haien artxibagailuetan gordetzea. Horretarako, ikasleek mezu horiek haien egunerokotasuneko errealitatean islatuta ikusi behar dituzte.

Jarduera hau, burutu egingo den bigarren ekintza izango da, esan bezala, ikasleak gaian murgiltzen hasiko direlako eta bakoitzak honen inguruan zer pentsatzen duen aipatuko duelako. Dena den, aipatzekoa da, nortasun agiria egin eta gero, hau da, post-test egin aurretik, ariketa hau egingo dutela, baina kasu honetan helburu desberdin batekin. Oraingoan, egindako prozesua guztiz ixteko eta ikasleek landutako guztiaren inguruan lotura bat ezartzeko.

“Autoezagutza desberdinak ezagutuz”⁴ jarduerarako, ikasleentzako koaderno bat sortu egin da. Honetan, bi atal bereizten dira: lehenengoan, autoezagutza desberdinak ezagutuko dituzte eta bigarren atalean, aldiz, haien burua deskribatu egingo dute. Azken hori, hurrengo ariketan, “Ni neu” deiturikoan, hobeto azalduko da.

³ IKUS “Denok gara...” deituriko sortutako txartela (3. Eranskina)

⁴ IKUS “Autoezagutza desberdinak ezagutuz” deituriko sortutako koaderno (4. eranskina)

Lehenengo atala erreparatuz, ikasleen autoezagutzan aldaketak eragin ahal izateko, ezinbestekoa da, lehenik eta behin, autoezagutza zer den eta egon daitezkeen mota desberdinak ezagutzea. Horretarako, sortutako egoerak irakurtzen doazen heinean, hausnarketa bultzatzea lagungarria da, haiek ere haien burua ezagutzen joateko. Horretarako, irakaslea, prozesuaren gidaria izatea pentsatu egin da.

Autoezagutzaren definizioa, guztion artean sortu behar izango dutenez, ezin izango dute hiztegia erabili, hori baita biderik errezena. Denen artean osatzerakoan, kontzeptuaz hausnartu egiten dute, honen esanahia barneratuz.

Autoezagutza fisiko desberdinak ezagutzeko, lau pertsonai desberdinen egoerak⁵ lehengo pertsonan aurkezten dira, ikasleei zuzenduta, haien artean harremana zuzena eta estua sortzeko.

Lau pertsonaietatik, hiru sortuak izan dira, eta gainerakoa, aldiz, existitzen den pertsona bat da, mundu mailan, eta bereziki ikasleen artean, oso famatua ez dena. Ikasleei ez zaie esango, horietariko batzuk asmatuak izan direla, azken finean, errealitatean, eta agian, haien artean ere, ezaugarri edo egoera guzti horietatik, horiek edo antzekoak dituzten beste pertsona batzuk existitzen direlako. Aipatzekoa ere bada, deskribapen horien bidez, ikasle batzuk haien burua identifikatuta ikusi ahal izango dutela, gaiarekiko harreman estuagoa sortuz eta sakonago hausnartuz.

Aurkeztuko zaizkien kasu desberdin guztiak, bereziki, asmatu egin direnak, sinesgarriagoak izateko, internetetik ateratako ume batzuen argazkiak azaltzen dira, bakoitzari dagokion testuan, aipatzen diren ezaugarriekin bat etorritz.

Lau autoezagutza desberdin hauek, talde handian irakurri egingo dira eta ikasle bakoitzak bere koadernoan, autoezagutzaren inguruan aipatzen diren ideiak azpimarratu behar izango ditu. Azken finean, garrantzitsuena, ikasleek autoezagutza desberdinak identifikatzea eta ezagutzea baita.

“Autoezagutza desberdinak ezagutzuz”, hirugarren ekintza izango da, aldaketa prozesu honetan, landuko duten kontzeptua hasieratik zer den jakin behar dutelako. Hau da, ezinbestekoa da maila emozionala lantzen hasi baino lehen, arrazonomendu maila landuta izatea, ondoren, egiten dena ulertu ahal izateko.

⁵ IKUS pertsonai bakoitzaren ezaugarri nabarmenenak eta hauek jartzearen justifikazioa (5.eranskina)

Aipatu bezala, koaderno honen azkenengo atalean, pertsonai desberdinak landu eta gero, “*Ni neu*” pertsonaia dago, non ikasleek, haien burua deskribatu behar izango duten.

Ikasleek ahalik eta garrantzitsuen sentiarazteko eta haien autoezagutza fisikoa, besteena bezain garrantzitsua dena, egon daitekeen beste mota bat dela ikustarazteko, “*Ni neu*” deituriko atal honetan, “Autoezagutza desberdinak ezagutzuz” deituriko koadernoan dauden aurreko autoezagutzen eredu jarraitzea pentsatu da. Hori dela eta, atal hau dokumentu berean aurkitzen da eta ikasleei lerro kopuru zehatz bat jarri zaie, norberari buruz idatzi behar izango dutenaren erreferentzia bat izateko. Horretaz gain, azaldu dutenaren inguruko irudia ere egin behar izango dute, haien argazkia izango balitz bezala.

Ekintza hau ez da egingo autoezagutza mota desberdinak irakurri eta gero, ondorioz azken aurreko ariketa izango da. Izan ere, hasiera batean egiten baldin bada, ikasleek, ordura arte, ez dute gaiarekiko harreman esturik izango eta gainera, ondorengo ariketekin eta hauen inguruko hausnarketarekin, haien burua hobeto ezagutzen joango dira, nolakoak diren azaltzeko konfiantza ere handituz.

Prestatutako hurrengo interbentzioa, interneten dagoen film labur bat ikustea izango da, “*El Circo de las mariposas*” deiturikoa.

Hizkuntza aldetik, pelikula ikusteko bi aukera daude: alde batetik, ingelesez baina gaztelaniako azpтитuluekin, edo bestela, Hego Ameriketako gaztelaniarekin. Bi egoera horien aurrean, bigarren kasuan ikustea erabaki da, ikasle jakin batzuek, eszena batek irauten duen denbora kontuan izanik, azpтитuluak irakurtzeko denborarik ez dutelako izango.

Film hau ikustea erabaki da, ikasleei, norberak bere trebetasunak edo ahuleziak izanda, esfortzuekin, konfiantzarekin eta garrantzitsuena dena, norberarekiko onespenearekin, nahi dena lortu dezaketela transmitituko zaielako, haien autoezagutza eta autokonfiantza handituz.

Ikasleen adinari dagokionez, film hau oso erakargarria eta eraginkorra da, alde batetik, haien arreta mantentzen laguntzen duelako eta beste alde batetik, landu nahi den gaia

zuzenean lantzen duelako, kasu honetan autoezagutza eta norberaren buruarekiko eta gainerakoekiko errespetua.

Pelikula ikusi eta gero, ikasleak taldeetan antolatu beharko dira, amankomunean haientzat deigarria izan denaren inguruko hausnarketa egiteko. Taldeak erreparatuz, lau pertsonetako lau talde izango dira, eta jesarrita dauden moduan antolatzea erabaki da, genero bereizketarik ez egitea kontuan izanda. Gainera, era honetan, ikasleek tokatzen zaien pertsonarekin lan egitea onartu eta errespetatu behar izango dute.

Damon eta Phelps (1989) kooperatibismoaren barruan egiten duten sailkapenean, taldeetan lan egiteko ekintza, “*colaboración entre iguales*” delakoan sartuko genuke. Izan ere, trebetasun antzekoak dituzten ikasleek elkarrekin lan egiten dute, zeregin baten garapenaren inguruan, iritzi desberdinak entzunez eta elkarbizitzako baloreak landuz eta bultzatuz.

Haien artean egindako hausnarketa, gainerakoekin amankomunean jarriko dute. Izan ere, Cazden-ek (1991) aipatzen duen “*discurso como relación con un auditorio*” horretan oinarriturik, ikasleek, ikasitakoa haien artean adierazteko nahia izaten dute, ikaskuntza esanguratsua emateko.

Ekintza bukatu eta gero, haien ideiak kartoi-mehetan adierazita daudelarik gelako hormetan itsatsi egingo dira, egunero irakurtzen dituztenean, idatzita dauden mezuak eta hauen esanahiak birgogoratzeko, horiengan sinesteko eta bide batez, haien autoezagutza era egokian garantzen joateko.

“*El circo de las mariposas*” pelikulari dagokionez, laugarren ariketa izango da. Honen bidez, ikasleak pixkanaka-pixkanaka arrazonamendu maila alde batera utziz eta maila emozionalean sartuz joango direlako.

Hurrengo jardueran, “**Esperientzia pertsonalak ezagutuz**”⁶ deiturikoan, ikasleek, nahiz eta fisikoari dagokionez arazoren bat izan, norberak norberarengan konfiantza izanda gauzak eta itxaropenak zelan lortu daitezkeen ikusteko aukera izango dute, pertsona ezagun edo ezezagunen esperientzien informazioa jasoz eta gainerakoei azalduz.

⁶ IKUS “Esperientzia pertsonalak ezagutuz” jarduerarako sortutako fitxa (6.eranskina)

Horretaz gain, ikasleek enpatia landuko dute, baita, gainerakoekiko errespetua ere.

Guzti horretarako, ikasle bakoitzari aurretik prestatutako fitxa bat banatu egingo zaio non, egin behar dutenaren inguruko informazioa, eta bertan idazteko lerroak agertzen zaizkien. Horretaz gain, informazioa ondo aukeratzeko eta antolatzeke, gidoi moduan, galdera batzuk planteatzen zaizkie.

Gainerako ikasleen aurrean, pertsona horren egoeraren berri ematean, gainerakoek, esperientzia pertsonal berri bat ezagutzeaz gain, pertsona horrekiko enpatia lantzeko aukera ere izango dute.

Ikasle bakoitzari noren inguruan hitz egin behar izango duten ez zaio esleituko. Izan ere, norberak, agian, miresten duen pertsona baten inguruan egitea nahi du eta ondorioz, ez da ikasleen askatasuna eta motibazioa urratu nahi.

“Esperientzia pertsonalak ezagutzuz”, planteatutako bosgarren jarduera izango da, izan ere, maila emozionala zuzenean landu egiten da.

Metodologiarekin amaitzeko, proposatzen den azkeneko jarduera, **“Nortasun agiria”**⁷ da. Ekintza hau diseinatu egin da, ikasleek, haiek bezalakoa den beste inor ez dela existitzen ikusteko eta horretaz ohartarazteko. Helburu hori lortzeko, erabiliko den aldagai nagusia, hatz-marka izango da. Era honetan, haien artean eta baita mundu mailan ere datu hori izaten bakarrak direla ikusteko aukera izango dute, norberaren pertsonari eta existentziari garrantzia handia emanez.

Bakoitzaren dokumentuan, jarriko duten beste datu interesgarria, norberaren argazkia izango da. Horretarako, aurretik, gelako tutoreak duen ikasleen zerrendatik eskuratu egingo dira.

Aldi berean, bakarrak direla ohartzeko, ikasleek, haien artean datu pertsonalak alderatu behar izango dituzte. Horretarako, bakoitza bere jesarlekuetatik altxatu egingo da eta gela osotik sakabanatu egingo dira, haien parte-hartzea aktiboagoa izatera bultzatuz eta klasea ohikoa ez den beste modu batean antolatuz. Aipatzekoa da, ikasleentzat, ekintza hau oso motibagarria eta interesgarria izango dela, batez ere haien hatz-marka gainerakoenarekin alderatuko dutenean, bakoitzak forma desberdinak dituelako.

⁷ IKUS sortutako Nortasun-agiria (7.eranskina)

Norberaren garrantziaz ohartzeko, datuak desberdintzearekin nahikoa ez denez, alderatutakoaren inguruko hausnarketa bultzatu egingo da, transmititu egiten zaien ideia horretan sinestarazteko eta haien burua miresteke.

Nortasun agiria, ariketen interbentzioari amaiera emateko erabiliko da, hots, Post-testa egin aurretik. Izan ere, arrazonamendu maila eta maila emozionala landu eta gero, ekintza honen bidez, ikasleei argi geratuko zaie bakoitza bakarra dela, ezaugarri propioak dituenak.

3. Lanaren garapena

Lanaren garapena deituriko atal honetan, errealitatean, saioan gertatutakoa azalduko da. Izan ere, diseinaturiko interbentzio honen aurrean, ikasleek zer nolako jarrera eta erantzukizuna izan duten garrantzia handia dauka, bestela ariketak ez lirateke arrakastatsuak izango eta ikasleen motibazioa galdu egingo litzateke, gaiarekiko duten interesarekin batera..

Dena den, ariketa bakoitzaren diseinua⁸ ere planteatu egiten da, helburua, edukiak, gaitasunak, ariketaren deskribapena... zehazten direlarik.

Pre-testarekin hasi baino lehen, esan beharra dago, ikasleei landa-lana horren zergatia azaldu egin zaiela. Izan ere, parte hartuko duten ikerketa bat izango da, non haien erantzunak ebaluatuko diren eta horren ondorioz, ezinbestekoa ikusten da egoera aurkeztea.

3.1. Pre-test

Saioa burutzean gertatutakoa: hasteko, galdetegia egiteko planifikatuta zegoen denbora errespetatu egin dela esan beharra dago. Honekin batera, ekintza osoan zehar, ikasleak, bai itemak denon artean irakurri egin direnean, baita ikasleak, norberak bere galdetegiarri erantzuten egon direnean ere, isil-isilik aritu dira lanean.

Irakurketan sortu diren zalantzen artean, nabarmenena *ezkorra* hitzaren esanahia izan da. Hori dela eta, pertsona bat ezkorra noiz izaten den, ondorengo adibidearekin azaldu

⁸ IKUS ariketa bakoitzaren diseinua (8.eranskina)

egin zaie: futbol, boleibol... partidu bat jolastu aurretik, galdu egingo dutela esaten duen jokalaria ezkorra izango litzateke.

Dena den, esku-hartze honen aspektu positiboak erreparatuz, norbaitek jakin ez duen hitz baten aurrean, beste edonork jakin izan badu, lagunari azaltzeko prest azaldu egin direla izan da.

Aipatzekoa da, galdera itxien atala, orokorrean, nahiko arin bukatu egin dutela, eta bigarren atala egiteko, aldiz, non bakoitzak bere pentsamenduak idatzi behar izan dituzten, denbora gehiago eman dutela. Dena den, laguntza eskatu barik, bakoitzak berea idatzi egin du.

Ikasleak galdetegiari erantzuten egon diren bitartean, hurrengo jarduera “Denok gara...” prestatu da eta hartu beharreko neurriak edo zenbait aldaketa egin dira, hurrengo ariketaren atalean azalduko direnak.

3.2. “Denok gara...”

Saioa burutzerakoan gertatutakoa: ikasleak, galdetegia egiten egon diren bitartean, “Denok gara...” kartela arbelean itsatsita jarri da, materiala prestatzen joateko. Aipatutako kartelean idatzita agertzen dena, jesarleku guztietatik ikusten ez dela ikusita, bertan idatzita dagoena arbelean ere letra larriz idatzi da, denok ikusi ahal izateko. Dena den, egindako txartela, arbelean utzi da, ikasleei egindako aldaketaren berri emateko.

Pre-testarekin arinago bukatu egin dutenei, arbelean jarritakoa irakurtzeko eta horren inguruan hausnartzen joateko eskatu zaie, gainerakoak galdetegia bukatzen egon diren bitartean.

Galdetegiarekin bukatu eta “Denok gara...” ariketarekin hasi egin gara. Honetan, nork irakurriko zuen erabakitzerako orduan, ikasle guztiek haien eskuak altxatu egin dituzte, irakurtzeko eta parte-hartzeko gogoak erakutsiz.

Ikasleak, planteatu zaizkien galdera⁹ gehienengoa inguruan, erantzunak emateko gai izan dira. Gainera, kasu batzuetan, haien kritikotasun maila erakusteko aukera izan dute, transmititu nahi zaizkien edukiak eta baloreak menperatzen dituztela erakutsiz eta landutakoaren inguruan erlazioak sortuz. Beraz, ikasleen jarrera aktiboa izan dela aipatu

⁹ IKUS irakasleak planteatutako galderak eta ikasleen erantzunak (9.eranskina, 1.taula)

beharra dago. Gainera, normalean ikasle isilenak ere, haien iritzia ematen aritu dira etengabe.

Hala ere, eman dituzten erantzunak ikusita, teoria badakitela, baina ondoren, praktikara eramaten dutenean, askotan ez dutela betetzen ikusi da. Izan ere, inoiz, bestelako umeak iraintzen dituzte.

Haien artean, ez da eztabaida handirik sortu, bota dituzten ideia gehienak ildo beretik zihoazelako. Dena den, ikasle batek zer edo zer esaterakoan, beste batek horren inguruko gehigarri edo bitxikeriaren bat gehitu egin nahi izan du.

Aipatzekoa da, ariketa burutu dutenean, jarduerarekin bukatu eta gero, ikasle batek, bere eskua altxatu egin duela, egindakoa oso polita iruditu zaiola aitortuz.

3.3. “Autoezagutza desberdinak ezagutuz”

Saioa burutzean gertatutakoa: orokorrean, ekintza, pentsatuta eta planifikatuta zegoen moduan aurrera eraman da.

Ikasle bakoitzari autoezagutzaren koadernoan banatu egin zaienean, guztiak barruan zer dagoen begiratzen hasi dira, irrikan zeudela adieraziz. Honen aurrean, koaderno guztiak ixteko eskatu egin zaie, guztiok batera joateko eta klasea emateko giro egokia mantentzeko.

Autoezagutzaren definizioa¹⁰ egiterako orduan, ikasleen partetik ez dira inolako zailtasunik antzeman. Izan ere, pausoz pausu egiten joan dira, azkenean definizioa bere osotasunean eratuz. Dena den, *auto* eta *ezagutzaren* inguruko hitz gehiago bururatu ez zaizkienean, bertan usteko eta hurrengo pausuari ekiteko esan zaie, hots, definizioaren eraketari.

Definizioa eta baita irakurketa eta honen inguruko eztabaida egiten egon diren bitartean, ikasleak oso parte-hartzaile aritu dira une oro. Ea nork irakurriko zuen galdetu denean, ikasle guztiek eskua altxatu egin dute. Pertsonai bakoitzaren autoezagutza fisikoaren ezaugarriak erraz identifikatu dituzte eta era automatiko batean azpimarratzen aritu dira. Gainera, pertsonai bakoitzaren autoezagutza eta gainerakoek beraietaz pentsatzen

¹⁰ IKUS autoezagutzaren definizioa sortzeko prozesua (10.eranskina, 1. atala)

dutena desberdintzeko gai izan dira. Egoera berri bat irakurri aurretik, pertsonaiarekiko interesarekin azaldu dira, ezezagun horrek zer aipatuko zien jakiteko gogoz.

Amankomunean ideiak adierazten egon direnean¹¹, orokorrean, errespetuz azaldu dira, iritzi kritikoagoak pixkanaka-pixkanaka eratuz. Gainera, aipatzekoa ere bada, ikasleek haien esperientziekin edo haien inguruko jendearen egoerekin lotu egin dituztela irakurritako kasuak.

Esan beharra dago, hirugarren ekintza hau egin eta hurrengo egunetan, ikasleak behin eta berriz aipatu egin dutela Winnie telebistan, aldizkarietan, iragarkietan... ikusi dutela.

3.4. “*El circo de las mariposas*”

Saioa burutzean gertatutakoa: saioan zehar aldaketak eta moldaketak egiten joan behar izan da, ikasleen erantzukizuna ikusita, hori dela eta, planifikatuta zegoen denbora nahikoa ez denez izan, gehiago behar izan da.

Pelikula ikusten egon diren bitartean, besorik eta hankarik ez duen pertsonaia lehen aldiz agertu denean, ikasleren batek, bere eskuekin begiak estali egin ditu. Guztiek harridurazko aurpegia jarri dute, horrelako egoeran dagoen pertsona bat ikusten duten lehenengo aldia izango balitz bezala.

Pertsonaiak, ekintzaren bat era arrakastatsu batean egitea lortzen zuenean, ikasleek aurpegian zoriontasuna eta poztasuna adierazi egin dute irriabar baten bidez.

Pelikula ikusten amaitu dutenean, ikasle batzuk ideiarekin bat idatzi egin dute haien paperetan, eta gainera, kasu batzuetan, ideia bat baino gehiago. Besteek, pelikula ikusten egon diren bitartean ahaztu egin zaiela, zer jarri ez dakitela, aspekturen bat ulertu ez dutela... aipatu dute. Egoera horren aurrean, pelikularen inguruko hausnarketa¹² txiki bat egin dute denon artean, alderdi garrantzitsuenak eta interesgarrienak azalduz.

Pelikula ikusi eta azalpena eman eta gero, ikasleak, ezagutu duten pertsonai ezagun honen inguruan interesa handiarekin agertu dira ea benetan existitu egiten den galdetuz.

¹¹ IKUS autoezagutza bakoitzaren inguruan aipatutako ideia nabarmenenak (10.eranskina, 2.atala)

¹² IKUS pelikularen inguruan egindako hausnarketa txikia. (11.eranskina, 1. atala)

Haien interesa eta jakin-mina aprobetxatuz, berak errealitatean ematen dituen hitzaldi¹³ labur bat ikusteko aukera eman zaie..

Taldeak antolatzerako orduan, ez dira inolako arazorik egon, ikasle guztiek, taldekideak onartu eta errespetuz tratu egin dituzte. Lanean egon direnean, ideiak idazteko, erritmo desberdinak egon dira. Batzuk bukatu egin dutenean, marrazkiak egiten egon dira, kartoi-meheak apainduz. Saio batean egiteko eta amaitzeko denborarik ez dutenez izan, beste bigarren saio bat beharrezkoa izan da.

Bigarren saio horretan, talde bakoitzak lana bukatu egin duenez, jardueraren azkeneko parte arrakastaz bete da. Ikasleak, gainerakoen aurrean haien ideiak¹⁴ erakusten egon direnean, harrotasunarekin aritu dira. Aipatu beharra dago, talde batek, lau ideia aipatu beharrean, soilik hiru aipatu izan dituztela. Dena den, eta taldeen artean, ideia batzuk errepikatu arren, egindako lana dela eta, talde guztiak txalokatuak izan dira gainerako taldeengatik.

Beraz, pelikula ikusten eta ideiak amankomunean jartzen egon direnean, haien inplikazio maila ezin hobea izan da.

Saioaren hurrengo egunetan, ikasleek haien etxeetan pertsonai honen inguruko bideo gehiago ikusi egin dituztela aipatu dute.

3.5. “Esperientzia desberdinak ezagutuz”

Saioa burutzean gertatutakoa: eginkizunaren berri izan dutenean, ikasleek ea noren inguruan egingo duten pentsatzen hasi dira, gainerakoei aukeratu duten pertsona horri zer gertatu zaion interes handiarekin azalduz. Egoera horren aurrean, azalpenak hurrengo egunerako usteko eskatu zaie, izan ere, hurrengo egunean, bakoitzak, gainerakoei bilatutakoa azaldu egingo dio.

Hurrengo egunean, klasera sartu direnetik, bakoitzak nori buruz egin duen eta pertsona horren egoera zein den esaten hasi dira. Ondorioz, lasaitzeko eta informazio guzti hori geroko azalpenetarako usteko eskatu zaie.

¹³ IKUS “¿Vas a acabar siendo fuerte?” (Iturria: https://www.youtube.com/watch?v=X_XW6Y-K3QE) hitzaldian transmititzen den mezua. (11.eranskina, 2.atala)

¹⁴ IKUS ikasleek sortutako kartoi-meheak (12.eranskina)

Autoezagutzaren saioa hasi denean, ikasle guztiak gogotsu eta irrikan agertu dira, aurrera ateratzeko haien txandaren zain.

Ikasle guztiak egin beharrekoa etxetik eginda ekarri dute¹⁵, eta orokorrean, gehienek, mundu mailan ezaguna den pertsona baten inguruan egin dute. Hauen egoera zein den azaldu dutenean, mirespina erakutsi dute, gertatu zaiena eta lortu dutena ikaragarria irudituko balitzaie bezala. Gainera, kasu bakoitzean, entzuten egon diren ikasleek ere, galdera asko egin dituzte, haien artean *feedback-a* sortuz. Hori dela eta, haien interesa maila eta inplikazioa ikusita, pertsona ezagunen kasuan, interneten haien argazkiak eta bideoak bilatu eta ikusi egin dituzte proiektorearen bidez.

Horren ondorioz, ekintza burutzeko planifikatuta zeuden saioen kopurua luzatu behar izan da. Azken finean, ikasleek ekintzarekin disfrutatzen egon direlako eta bakoitzaren lanari berebiziko garrantzia eman zaiolako.

Pertsonaiak, birritan errepikatu egin dira, eta ondorioz, horren inguruan egin duten ikasleak batera atera dira, azken finean, informazioa ez delako berdina izan eta batek azaldu ez duena, besteak aldiz, bai.

Klasearen aurreko aldera atera direnean, beste irakasgaietan izan dituzten aurkezpenetan baino erosoago eta lasaiago nabaritu direla aipatu behar da. Izan ere, beste batzuetan, gelditu barik, ahotsa moztuta... egoten dira. Oraingoan, aldiz, disfrutatzen eta azaltzen zeudena ikaragarria irudituko balitzaie bezala egon dira.

Gaian hain sartuta egon direnez eta norbaitek animaliek ere minusbaliotasunen bat izan dezaketela aipatu duelarik, “*Winter*” izurdearen kasua aipatu zaie. *Winter*ek ortopedia-buztana izan arren, inolako arazorik gabe igeri egin dezake. Ikasleek, aipatu zaien kasuan gehiago sinesteko, *Winter*en inguruan egin den pelikularen trailerra eta honekin batera, izurdea dagoen *aquariumeko* web cam-a erakutsi zaie internetetik¹⁶. *Winter* uretatik irten denean, ikasle guztiak oso urduri jarri dira *Winter*-ri deika. Batzuk, nahiz eta oso argi ikusi ez arren, bere ortopedia-buztana ikusi egin dutela hasi dira esaten.

Hurrengo egunean, ikasle batek, etxean pelikula ikusi duela aipatu egin du.

¹⁵ IKUS Ikasleak ebaluatzeko erabili den behaketa-fitxa (13.eranskina)

¹⁶ IKUS *Aquariumeko web-cam* (Iturria: <http://www.seewinter.com/animals-exhibits/meet-animals/live-web-cams-0>)

3.6. “Ni neu”

Saioa burutzean gertatutakoa: ikasleei bakoitzaren koadernoan banatu egin zaienean, irrika handiz hasi dira lau pertsonaien egoerak berrikusten, batez ere, Winniren kasua, izan ere, jada iragarkietan ikusi izan dute.

Ikasleen parte-hartzea egokia izan da, izan ere, irakurtzeko eskatu zaienean, guztiek eskua altxatu egin dute irakurtzeko prest daudela adieraziz. Orokorrean, ez dira zalantzarik egon eta ondorioz, ikasle batzuk automatikoki idazten hasi dira. Bitartean, beste batzuk, minutu pare batzuk behar izan dituzte eskatzen zitzaienaren inguruan pentsatzeko eta haien burua argitzeko.

Ikasle gehienek, koadernoan markatuta dauden lerro guztiak bete izan dituzte haien autoezagutzaren deskribapenarekin.

Idazten bukatu egin dutenean, haien buruaren irudia egin dute. Ekintza hau egiten, aurrekoan, idazketan, baino denbora gutxiago behar izan dutela aipatu beharra dago. Gainera, norbera, albokoari bere marrazkia erakusten ibili da, haien artean giro eroso sortuz.

3.7. “Nortasun agiria”

Saioa burutzean gertatutakoa: nortasun agiria ea zer den galdetu egin zaienean, ikasle batzuk, norberari buruzko informazioa eskaintzen duen dokumentu bat dela esan dute. Beraz, jada ezagutzen zutela nabari da.

Esan beharra dago, nolabait urduri aritu direla datuak jartzerako orduan, izan ere, betetzea gehien nahi izan duten datua, hatz-markaren izan da. Hori dela eta, tinta potea erakutsi zaienean, guztiak asaldatu egin dira, urduritasuna adieraziz. Ekintzarekin aurrera egiteko ikasleak lasaitu behar izan dira.

Haien marka nolakoa den ikusi dutenean, gainerakoei erakusteko gogoz agertu dira. Ondorioz, haien artean datuak alderatzeko eskatu zaienean, arineketan haien jesarlekuetatik altxatu eta lagunengana hurbildu egin dira.

Orokorrean, ez dira bereizketarik egon nesken edo mutilen artean. Hau da, denak denengana edo gehienengana hurbildu egin dira. Alderatu egin duten daturik edo

ezaugarriarik nabarmenena, hatz-marka izan da, hori baita haien interesa eta arreta gehien piztu duena.

Konparaketa egin eta gero, denon artean alderatutakoaren inguruko hausnarketa egitean, esandako guztiaren artean, nabarmenena edo esanguratsuena, inork ez duela haien hatz-marka berbera izan da. Izena, abizena, jaiotze data... berdina izan daitekeen bitartean, hatz-marka inoiz ez da berdina izango eta hori da bata bestearengandik desberdintzen gaituen ezaugarri nagusienetariko bat.

Ikasleak, orokorrean, oso parte-hartzaile egon dira, batez ere, haien artean dokumentuak konparatu behar izan dituztenean¹⁷. Izan ere, gainerakoek hatz-markak zer nolako formak dituen ikusteko irrika handiarekin egon dira. Nortasun agiria haien zati izango dela jakin dutenean, oso pozik jarri dira, eta berehala haien karpeta gorde egin dute.

Hurrengo egunean, ikasle batek bere gurasoei egindakoa erakutsi egin diela eta izugarri gustatu zaiela esan du.

3.8. “Denok gara...”

Saioa burutzean gertatutakoa: kontuan izanda, ekintza hau lehen aldiz burutu egin zenean, diseinaturiko txartela arbelan jarrita, jesarleku guztietatik ezin zela irakurri, oraingoan, saioa hasi aurretik, arbelean ikasleei transmititu nahi zaien mezua idatzita utzi da. Hori dela eta, ikasleak gelara sartu direnean, arbelakoa ikusita, interbentzioaren leloa esaten hasi dira, jada buruz jakingo balute bezala.

Bakoitza bere jesarlekuan jesarrita egon delarik, ea nork irakurri nahi duen galdetu zaienena, beti bezala, guztiek eskua altxatu egin dute.

Orokorrean, planteatu zaizkien galderen aurrean, erantzun¹⁸ bat emateko gai izan dira. Baita, erantzun horiek ematerakoan, aurreko ariketetan landutakoarekin erlazioa sortzeko ere. Ikasle guztien parte-hartzea sustatu egin da, eta esan dituzten ideiak, orokorrean antzekoak izan direla aipatu beharra dago. Gainera, aurrekoan bezala, norbaitek beste batek esandakoaren inguruan zer edo zer aipatu izan badu, ideia horren gehigarria izan da.

¹⁷ IKUS ikasleen parte-hartzea ebaluatzeko erabili den behaketa-fitxa (14.eranskina)

¹⁸ IKUS irakaslearen galdera eta ikasleen erantzun nabarmenenak (9.eranskina, 2.taula)

3.9. Post-test

Saioa burutzean gertatutakoa: ea zalantzarik duten galdetu zaienean, ikasle batek “ezkorra” hitza ea zer den galdetu egin du berriz ere. Beste ikasle batek, esanahia esateko asmoarekin eskua altxatu egin duenez, berak azaltzen utzi egin zaio eta Pre-testan jarritako adibide antzeko bat jarri du: *“azterketa bat egin aurretik, ez duela gaindituko pentsatzen edo esaten duen pertsona ezkorra izango litzateke”*.

Dena argituta egon denean, norberak bere galdetegiarekin hasi egin da. Bakoitza isilik isilik aritu da lanean, gainerakoekin ezer aipatu barik.

Esan beharra dago, ikasleek, aurreko galdetegiarekin konparatuta askoz ere arinago bukatu egin dutela. Gainera, haien burua deskribatu behar izan duten atal horretan, ea zergatik berriro egin behar duten galdetu egin dute. Izan ere, “Ni neu” ekintzan, antzeko zer edo zer egin zuten. Dena den, aurrera egin dute, eskatu zaien guztia betez.

Beraz, esan daiteke, saioa planifikatu eta diseinatuta zegoen bezala burutu egin dela, bai denbora aldetik eta baita helburuaren aldetik.

4. Emaitzak

Emaitzak erreparatuz, Pre-testan eta Post-testan lortutakoak alderaturik, eman diren aldaketa nabarmenen inguruan hitz egingo da. Dena den, aurretik, datuak aztertzeo jarraitutako irizpideak¹⁹ erreparatzea ezinbestekoa da, baita emaitza hauetara heltzeko, aurretik jarraitutako prozesua²⁰ ere.


Taulak ikusita, ikasleengan, item gehienetan aldaketak eman dira. 6., 7., 9. eta 10.enetan, aldiz, ez dira inolako aldaketarik eman, hau da, interbentzioa egin eta gero, hasieran pentsatzen zutena, amaieran ere pentsatzen jarraitu dute.

Aldaketak eman direnean, kasu batzuetan, hoberantz eta beste batzuetan, okerrerantz egin dute. Dena den, orokorrean, interbentzioa egin eta gero, hobetu egin direnen ehunekoa nahiko handia da eta gainera, *item* horietan, aldaketarik izan ez dutenak, berdin mantentzea lortu da.

¹⁹ IKUS datuak ateratzeko jarraitutako irizpideak (15.eranskina)

²⁰ IKUS datuak aztertzeo jarraitutako prozesua (16.eranskina)

Aldaketarik nabarmenena 3. *iteman* (besteek nitaz zer pentsatzen duten inporta zait) eman da, beheko grafikoan ikusi daitekeen moduan, ikasleen %68,75a aldatu egin baita.




1. Grafikoa. 3. *iteman* eman den aldaketaren ehunekoa

2. Grafikoa. 3. *itemaren* aldaketaren egoeraren ehunekoa

Aldatu egin diren horien artean, %45.45aren autoezagutza hobetu egin da. Gainerakoan artean, espero zenaren aurkako emaitza lortu da, enpatia hainbeste landu nahi izateagatik, beharbada, azkenean, gainerakoek pentsatzen dutenari garrantzia handia eman diotelako. Horretaz gain, nahitasunaren kontzeptua ere eman dela pentsa daiteke. Kasu honetan, ikasleek, haien ustez irakasleak espero duen erantzuna ematen dute.

Beste alde batetik, 1., 2., 4., 5. eta 11. *itemetan*, nahiz eta aldaketaren ehunekoa txikia izan, horien artean guztiek hobetu egin dutela esan daiteke. Argiago ikusteko, 4. *itemaren* (besteen fisikoaz barre egiten dut) egoera adibidetzat hartuko da. Gainerakoan egoera²¹ eranskinetan ikusi daiteke.




3. Grafikoa. 4. *iteman* eman den aldaketaren ehunekoa

4. Grafikoa. 4. *itemaren* aldaketaren egoeraren ehunekoa

²¹ IKUS 1., 2., 5., eta 11., *itemen* grafikoak (17.eranskina)

Emaitzekin amaitzeko, 8.itema (alferra naiz) erreparatuz, ikasleen artean aldaketak pairatu direla esan daiteke, izan ere, %43,75a aldatu egin da.



3. Grafikoa. 8.iteman eman den aldaketan ehunekoak

6. Grafikoa. 8.itemaren aldaketan ekoizpenaren ehunekoak

Aldatu diren horietatik, ikasleen kopuru nabarmen bat hoberantz aldatu egin da. Dena den, zaila da esatea zergatik gainerako guztiak okertu egin diren, izan ere, ikasleei etengabe transmititu egin zaie esfortzu eta aurrera egitearen ideia.

5. Ondorioak

Aztertutako datuak ikusita, eta jakinda, galdera irekiak (11.itemak) ea aldaketarik eman diren ala ez gehiago ziurtatzen duela, orokorrean, aldaketak eman dira, baina ehunekoa (%6,25) kontuan izanda, ez direla oso nabarmenak esan daiteke. Horrek ez du esan nahi, diseinaturiko eta aurrera eramandako interbentzioa eraginkorra ez denik. Izan ere, *item* gehienetan (6., 7., 9. eta 10.ean izan ezik), ikasle batzuetan aldaketa arrakastatsuren bat eman da. Gainera, kontuan izan behar da, autoezagutzan, aldaketak epe luzean ematen direla.

Hori guztia kontuan izanda, interbentzioaren hasieran zehaztutako helburu orokorra ez dela bere osotasunean bete esan daiteke. Dena den, ezin dira baieztapenak egin, interbentzioa oso laburra izan delako eta landa-lan honetara (deskribatzailea dena) hurbiltzen den ikerketa bat baino ez da egin.

Aipatu beharra dago, esku-hartzean aldaketaren bat egin behar izatekotan, “Ni neu” deituriko ariketan egingo zirela. Kasu honetan, Pre-testa eta Post-teta ebaluatzeaz gain, hori ere ebaluatu egingo litzateke. Izan ere, ikusitakoaren arabera, ariketa honetan, ikasleek Post-testan baino ezaugarri eta alderdi gehiago aipatu eta azaldu egin dituzte. Ondorioz, ariketa horretatik etekina atera daiteke, ikasleengan ea aldaketarik eman diren ala ez aztertzerako orduan.

Interbentzioa, ikasleentzako erakargarria eta interesgarria suertatu da, prozesu osoan zehar motibazioa eta parte-hartzeko gogoak galdu ez dituztelako. Hori dela eta, haien erantzukizuna ikusita, ekintzaren bat gehitu behar izan da, esku hartzea gehiago luzatuz.

Ikasleak, maila emozionala eta arrazonamenduzkoa lantzen hasi dira, haien autoezagutzan gero eta gehiago sakonduz eta hura aberastuz. Honekin batera, aipatu beharra dago, nahiz eta ikasleen autoezagutzan aldaketa nabarmenik ez eman, emaitzetan ikusi daitekeenaren arabera, ikasleek errespetuaren balioa barneratu egin dutela.

Aipatutako guztiagatik, egindako landa-lana honen bidez, eskoletan ikasleen autoezagutzan indarra egitea eta gero eta gehiago lantzea espero da. Horretarako, hurrengo lanetarako, proposatutako sekuentzia erabilgarria edo kontuan izan daiteke, beharrezkoak diren moldaketak eginez, hala nola, esku-hartzearen luzapenari dagokionez. Izan ere, emaitzak erreparatuz, epe luzean, aldaketa nabarmenagoak lortu daitezkeela ematen du. Honekin batera, saioak burutzerakoan, gehitutako ekintzak ere kontuan izatea interesgarria izango litzateke, ikasleen interesa gehiago handitzeko.

Autoezagutza okerrak saihesteko, ikasleengan, esfortzua bultzatzearen inguruko ekintzaren bat proposatzea komenigarria izango litzateke, haiek esfortzu horren protagonistak direlarik. Beste alde batetik, ikasleei argi eta garbi utzi beharko zaie, gainerakoek pentsatzen dutena baino garrantzitsuagoa, norberak berari buruz pentsatzen duena dela. Izan ere, askotan, besteek esaten dutenari garrantzia handia ematen bazaio, sinesmena bihurtu egiten da eta askotan, horren ondorioz, gure autoezagutza okertu egiten da, baita autoestimua ere, esan bezala, dena lotuta baitago.

Erreferentzia bibliografikoak

- Catalina Sancho, J., Fraile Aranda, A., & Martín Antón, L. J. (2009). El autoconcepto físico en la educación primaria. *International Journal of Developmental and Educational Psychology*, 143–152.
- Cazden, C. B. (1988). *Classroom discourse: the language of teaching and learning*. Portsmouth, NH: Heinemann [Trad. Cast.: *El discurso en el aula. El lenguaje de la enseñanza y el aprendizaje*. Barcelona: Paidós, 1991]

- Damon, W., & Phleps, E. (1989). Critical distinctions among three approaches to peer education. *International Journal of Educational Research*, 13, 9–19.
- De la Herrán, G. A. (2004). El autoconocimiento como eje de la formación. *Revista Complutense de Educación*, 15, 11–50.
- García, F., & Musitu, G. (2014). *AF-5 Autoconcepto Forma 5* (Tea edicio.). Tea ediciones.
- Goñi, A., Palacios Navarro, S., Ruiz de Azua, S., & Zulaika Isasti, L. M. (2002). Autokontzeptuaren hierarki-izaeraren azterketa, eremu fisikotik abiatuz. *Tantak*, 28, 51–64.
- Goñi, A., Ruiz de Azúa, S., y Rodríguez, A. (2005). La importancia conferida a los diversos aspectos del yo físico: Un instrumento para su medida. *Anales de Psicología*, 21(1), 92-101.
- Greene, B. ., & Miller, R. B. (1996). Influences on Achievement: Golas perceived Ability and Cognitive Engagement. *Contemporary Educational Psychology*, 181–192.
- Hezkuntza, U. eta I. S. (2010). Oinarrizko hezkuntza curriculum. *BOPV*, 1–109.
- Miras, M. (n.d.). Afectos, emociones, atribuciones y expectativas: el sentido del aprendizaje escolar. In *Desarrollo psicológico y educación* (pp. 309–329).
- Moré Mesa, N. L., & Hernández carballé, M. (2015). El autoconocimiento: Una habilidad social a desarrollar. *Transformación*, 46–55.
- Navarro Suanes, M. (2009). Autoconocimiento y Autoestima. *Revista Digital Para Profesionales de La Enseñanza*, 1–9.
- Savater, F. (1997). *El valor de educar* (Editorial .). Editorial Ariel S.L.
- Vilaseca, B. (2014). La educación exige emociones. *El país*.